

# Joanes Uharte Donibanekoaren *Zientzietarako Argimenen* *Azterketa-n* ikasleria ikertzeko eskainitako bide berriak

Fito Rodriguez

**EHUko irakaslea. Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza Saileko bazkidea eta UEUko kidea**

Joanes Uharte Donibanekoaren liburuan hiru ikasle-mota daudela esaten da. Azalpen horrekin batera, Uhartek oroimena, adimena eta irudimena bereizi nahi izan zituen ikaslearengan, eta hiru motatako ezaguerak aurkeztu. Haurraren egitura kognitiboa aztertzeko eta pedagogikoki bere ezaugarriak bideratu ahal izateko ikuspegi berri horrek eten egin zuen Aristotelesengandik jasotakoaren ohiko planteamendu klasikoarekin eta, gainera, bide berriak ireki zizkion Hezkuntzaren Teoriari. Zertan apurtu zuen Joanes Uharte Donibanekoak aurrekarien iritzia eta zer-nolako bide berriak zabaldu zituen heziketa-arloan argitzea da ekarpen honen funtsa.

It is said that according to the book of Joanes Uharte of Donibane there are three kinds of students. He explored the distinction between memory, intelligence and imagination in order to distinguish the three kinds of different knowledge gained by the pupils. That new approach to analyze the cognitive structure of the children lead him to cut the ties with the classical Aristotelian view and to open some new trends within the Education Theory. The aim of this article is precisely to make it clear where did Joanes Uharte of Donibane abandon the traditional path and which where the new ways that he opened in the educational field.

## 1. Uharte sendagilea giza zientzien ikerlari

Joanes Uharte Donibaneako medikuntza-ikasketak egin eta horretan aritu ondoren idatzi zuen bere *Zientzietarako Argimenen Azterketa*. Garai hartan, jakina, gaur egun zientzien artean ohiko bihurtu diren mugak erabiltzea ezinezkoa zen; hala ere, haren ekarpena abiapuntutzat hartu da Hezkuntzaren Psikologian. Ez dugu ahaztu behar sendagileek jarri zituztela Psikologiaren oinarriak. Wundt, Lombroso zein Freud medikuntzatik etorrira ere, beren Psikologiarako ekarpenak ez ditu inork ukatuko (Alvárez eta beste, 1994). Sendagileek erabilitako lanbideak ikertzeak giza zientzien azterketarako bide emankorrak eskaini ditu (Foucault, 1954; 1961; 1963; 1965), hemen jorratu nahi ditugun motakoak, hain zuen.

Izan ere, Joanes Uharte Donibaneakoaren *Zientzietarako Argimenen Azterketa*-n Hezkuntzaz argibideak eman arren ( I., II. eta III. Ataletan batik bat), ez dira ikasketak gizakiaren bilakaerari dagokion aro berezi bakar batekin lotzen (hautzarroarekin, adibidez); gizakiak sailkatzeko baino ez ditu erabili. Joanes Uharte Donibaneakoaren arabera, beraz, ikasleria ezin da adin jakin batekin lotu. Areago, ikasketarako ahalmena gizakiaren nortasunari dagokion gaitasuntzat hartu zuen eta, bide batez, bakoitzaren izaera definitzeko funtsezko ezaugarri bihurtu zuen. Horrela, bada, gizabanakotzearen bide moderno irekitzeaz gain, Erdi Aroko gizarte estamentalari eta mailakatuari zegokion ikasleria ulertzeko eredua hautsi zuen, eta, ildo horretatik, gizakia bera ulertzeko ere bai.

Erdi Aroan erabilitako ikasketa moduak kolektiboak ziren. Hala monasterioetan (B.B.A.A., 1978), nahiz unibertsitateetan (Le Goff, 1957; Panofsky, 1959; Sacristán, 1977), nola gremioetan, zein kofradietan (Garmendia, 1977), ikasketen antolaketa taldea zuen oinarritzat. Eredu prezeptorala, berriz, printzeen heziketarako bakarrik erabili zen (Varela eta Alvarez-Uría, 1991); baina, horretan ere, ezin da esan gizabanakotze-prozedura dagoenik, izan ere, jauntxo edo printze haiek adin jakin batean baino ez ziren ikasle eta haien maisuek, gainera, ikaslea zenarekin batera ibili behar zuten ikaslea zen bitartean<sup>1</sup> (Varela, 1983).

## 2. Giza zientziak modernitatearen atarian

Joanes Uharte Donibaneakoaren *Zientzietarako Argimenen Azterketak* gizakia ulertzeko ikuspegi moderno eskaini zuen lehen aldiz; izan ere, Erdi Aroko gizona gizabanako gisa ulertu zuen eta haren ikasketarako gaitasuna definitu zuen, eta, ondorioz, gizabanako haren bilakaerarako ahalmena.

Erdi Aroko gizarte estatikoaren partez, Errenazimenduari zegokion gizakia eta gizarte dinamikoaren aldeko apustua daukagu ikusgai Joanes Uharte Donibaneakoaren *Zientzietarako Argimenen Azterketa* lanean, non lehenengo ataletik hasita, ikasketarako gaitasun bakoitzari zeregin desberdina aholkatzen zaion:

---

1. Gogoratu, adibidez, Gargantuaren prezeptorea zen Ponokratesen jardunaz Rabelaisek bere *Gargantua et Pantagruel* liburuan dioena.

Nerau bederen egia honen lekuko ona naiz. Zeren hiru lagun sartu ginen elkarrekin latin ikastera, eta bata hura txit errazki ikasi zuen, eta gainerakoek ez zuten inoiz perpaus dotore bat osatzerik ukan. Baina hirurak dialektikara iraganik, gramatika ezin ikas zezaketenetako bat arte horietan goi mailako arrano gertatu zen, eta beste biek ez zuten ikastaro osoan hitzik ere erran. Eta hirurok astrologia entzutera etorririk, kontsideratzekoa izan zen ez latin ez dialektika ikasterik ez zuenak handik egun gutxitara irakasten zigun maisuak berak baino gehiago jakin zuela, gainerakooi hura buruan inoiz ezin sartu zitzaigun artean. Eta harrez gero, espantuz, hartaz gogoeta egiten eta filosofatzen hasi nintzen, eta neure kontutik aurkitu nuen zientzia bakoitzak bere argimen berezi eta bedera eskatzen zuela, eta hark, behin handik ateraz gero, ez zuela deus balio gainerako letretarako (Uharte Donibanekoa, 1996: 67).

Baina, esan bezala, eskarmentutik ateratako ondorioa da (hau da, nahiz eta atalean zehar Sokrates, Platon, Aristoteles, Zizeron, Galeno eta abar aipatu, funtsezko baieztapena ez da oinarritzen inolako autoritatean, bere esperientzia pertsonalean baizik) eta berak bakarrik sortutako gogoeta dugu. Orduan ageriarazten ari zen pentsaera protestantea dakarkigu gogora mota horretako hausnarketak (Cipolla, 1970).

Edonola ere, garbi dauka Joanes Uharte Donibanekoak, bere *Zientzietarako Argimenen Azterketa*-n ikasteko garaiak badaudela (Uharte Donibanekoa, 1996: 68-69) eta maisuak ezaugarri bereziak behar dituela (*ibidem*); baina, betiere, norberak dituen ezaguerazko tankerak baldintzatuko duela emaitza:

Naturaren aurka tiraka ez iharduteko, eta ez gaitetzela saia hizlari izaten hark horretarako biderik ematen ez badigu, alferlana eginen dugulako (*op. cit.* 72).

Honekin guztiarekin Uhartek irakaslea eta ikasleria definitzeaz gain, ezaguerazko tankeraren araberrako pedagogia proposatu zuen, gizabanakoaren neurrirat<sup>2</sup>; eta, azken finean, Berpizkundean hedatzen ari zen pentsamendu modernoaren lekukotasuna ere eman zigun.

### 3. Protestantismoaren arrastoak Joanes Uharte Donibanekoarengan

Zehatz-mehatz Uharte noiz jaio zen oraingoz jakiterik ez badago ere (1529an izan zela uste dute aditu gehienek), non jaio zen argi dago. Horixe bezain garbi dago, era berean, 1530etik 1660ra bitartean Donibane Garazi eta bere ingurua (Nafarroako Erresuma zaharreko azken aztarnak) ez zeudela Gaztelako, Frantziako, Aragoiko edota beste inongo Koroaren menpe. Protestantismoa zela lurralde hartako erlijioa ere ez dago dudarik (Olaizola, 1993). Hori zela-eta, Nafarroa Garaiko agintariek ez zieten onartzen baxenabartarrei herritartasunik, eta, bearnesei edota frantsesei bezala, ez zieten Nafarroa katolikoan geratzeko baimenik ematen. Gaztelaren menpeko Gorteek kanpotartzat hartzen zituzten baxenabartarrak eta edozein ofizio nahiz eliza-ikasketa egiteko aukera debekatzen zieten (López, 1977).

---

2. Jakina denez, hiru ikasle-mota daudela esaten du Uhartek: oroimenaren arabera, adimenaren arabera eta irudimenaren arabera ikasten dutenak.

Garai hartakoa dugu Joanes Leizarragaren *Itun Berria* eta Europan zehar latinez at eginiko Bibliaren lehenengo itzulpenak<sup>3</sup>. Luteranismoak gizaki berria aldarrikatzen zuen (Weber, 1964). Edonon, Erdi Aroko latinaren ordez, tokian tokiko hizkuntzak erabiltzen hasi ziren:

Cervantesek gai honi heldu zionean, esan zuen idaztean nork bere hizkuntza erabiliz lortzen dela adierazpen garbiena:

Homero handiak ez zuen latina erabili, ez eta Virgiliok grekoa ere... beraz, arrazoizkoa litzateke nazio guztiek, bakoitzak bere hizkuntza idazteko erabiltzea eta, ildo beretik, alemaniarra dena ez mespretxatzea alemanieraz idazten duelako, ez Gaztelakoa gaztelaniaz aritzen denean, ez eta bizkaitarra ere idazteko garaian berea darabilenean... (Kixotearen II. zatian, XVI. atalean, —1615—).

Baina nahiko frogatuta dago aldarrikapen hori, beste batzuk bezala, Uharteregangandik hartua dela (Torre, 1976: 40):

Aristotelesek dioenez, haurrek edozein hizkuntza hobeki ikasten baitute gizon nagusiek baino, hauek arrazionalagoak badira ere. Eta inork erran gabe, esperientziak berak erakusten digu hori argiro; izan ere badakusagu ezen baldin hogeita hamar edo berrogei urteko bizkaitar bat Gaztelara bizitzera badator, ez duela inoiz erdara ikasten eta mutila baldin bada bi edo hiru urtetan Toledon jaioa dirudiela... eta horretara, autore nagusietarik inor ez zen joan atzerriko hizkuntzaren bila bere kontzeptuak adierazteko: aitzitik, grekoek grezieraz izkiratu zuten, erromatarrek latinez, hebrearrek hebraieraz, eta mairuek arabieraz... (Uharte Donibanekoa, 1996: 149) —1575—.

Arrazoi berberetatik erabili nahi izan dut nik oraingo honetan nire euskara, Uharteren espiritu errenazentista behar bezala berreskuratzeko<sup>4</sup> eta, bide beretik, adierazpen ahalik eta garbiena lortu nahian<sup>5</sup>, baina funtsean Uharteri berari kasu eginez gero, pentsaeraren eta hizkuntzaren artean harreman zuzena badagoelako (Rodríguez, 1994):

Nola ezagun norbaitek adimenik baduen? Biderik onena adierazpena edo dialektika da. Froga-harriak urrea ezagutarazten duen bezala, halaber, adierazpenak adimena (Etxarren-Lohigorri, 1975: 86).

Eta aldarrikapen horretan aitzindaria dugu garaztarra, tokian tokiko kulturak gogamen unibertsala bera baldintzatzen duela espiritu katolikoaren aurkako iritzia baitzen:

---

3. Leizarragaren *Itun Berria* (1571), *Se Wsi* soumieraz (1548), etab. Europan latina erabili beharrean tokian tokiko hizkuntzen arabera eginiko Biblien itzulpenak zerrendatu ditu, besteak beste, Joseba Intxaustik bere *Euskera* liburuan (Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1997). Honetaz gain, orduko hizkuntza baino gehiago hezkuntzaren egoera aztertzeke, ikus Garinen *La educación en Europa, 1400-1600*. (Crítica, Bartzelona, 1987).

4. Jasan behar izan zituen jazarpenak zirela-eta, jatorri judua edo moriskoa barik kalbinismoaren eragina Uharterengan azpimarratu izan dute, besteak beste, Salamancako Unibertsitateko Biurrun irakasleak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lopez Goñi irakasleak.

5. Ahalegin honetan ezin ahaztu Etxarren-Lohigorriren 1975eko *Huarte, Hator Etxerat* (Jakin, Donostia). J.B. Etxarren dugu, gainera, *Zientzietarako Argimenen Azterketa* frantseseratu duen azken ikerlaria: *L'examen des sprits pour les sciences* (Atlantique, Biarritz, 2001).

Eta esperentziaz klarki ageri da zein urrun diren elkarrengandik grekoak eta eskitiarrak, frantsesak eta espainolak, indiarrak eta alemanak, Etiopiakoak eta ingelesak. Eta ez da hori soilki ageri hain herrialde apartatuetan; Espainia osoa inguratzen duten probintziak kontsideratzen baditugu, kontatu ditugun bertuteak eta bizioak haien bizilagunen artean bana ditzakegu [...] Kontsidera ditzagun katalanen argimen eta ohiturak, valentziarrenak, murtziar, granadar, andaluziar, extremadurar, portugaldar, galego, asturiar, montañes, bizkaitar, nafar eta aragoarrenak, eta Gaztelako giltzurrunekoena. Nork ez dakusa eta ez dazagu horiek artean ez direla berdin, aurpegiaren figuran eta gorputzaren izaeraz gainera, arimaren bertute eta bizioetan ere? [...] Ezin sinets daiteke zer nolako ezberdintasuna izaten den bertako bizilagunen artean (*op. cit.* 78-79).

Baina aipatzen dituen argudioen arabera eta, gizabanakoen sailkapena egin nahian, betiere<sup>6</sup>, gertuago dirudi Uharteren ikuspuntua Vygotskiren edo Luriaren Garapen Psikologiatik<sup>7</sup> defendatu ohi den bezala Chomskyren teoretatik baino<sup>8</sup>.

#### 4. Erdi Aroarekiko haustura Uharterengan

Ezin da zalantzan jarri Uhartek gizaki modernoaren ezaugarriak erakusten dituela. Era berean, aski garbi dago garai bertsean sortzen ari zen protestantismoaren ezaugarriak azalarazten dituela modernitate hark. Baina ezaugarri haiek guztiek ez zuten aurrekari gisa klasikoen pentsamendua, baizik eta, haien aipamen ugari eta guzti, haiekiko haustura garbia (Ajo, 1957).

Horrela, pentsatzeko gaitasuna gorputzean kokatzean, Aristotelesek defendaturikoaren aurka (Uharte Donibanekoa, 1996: 96), burmuinaren alde jotzen du garaztarrak bihotzaren kaltetan<sup>9</sup> (*op. cit.* 98).

Mirariak baztertzeko ez zuen beldurrik izan, eta mundua ulertzeko, zientziaren beharra errebindikatu zuen:

Ohartzekoa da haintzat ezagutu eta obra naturaletatik bereiztu behar dituenak filosofo natural handia behar duela eta ondorio bakoitzari jakin zer nolako kausa ordenaturik uka ditzakeen; eta, guztiarekin ere, ez da aski Eliza katolikoak haiek haintzat deklaritzen ez baditu (*op. cit.* 76).

---

6. Gogoratu Uharteren liburuak duen izenburu osoa: *Zientzietarako Argimen Azterketa non erakusten baitira gizonengan diren trebetasun ezberdinak, eta bakoitzari bereziki dagokion letra mota.*

7. Sapir-Whorfen ikuspunturaino iritsi gabe (hizkuntza bakoitza kultura jakin batekin loturik dagoela eta ezin dela hizkuntzen arteko benetako itzulpenik lortu), hala Vygotskik (*Pensamiento y Lenguaje*, La Pléyade, Buenos Aires, 1934) nola Luriak (*Los procesos cognitivos*, Fontanella, Barcelona, 1977), Chomskyren Adimenari buruzko Teoria tokian tokiko kulturaren arabera baldintzatzen dute.

8. Noam Chomskyk berak *Language and Mind* liburuan (*El Lenguaje y el entendimiento*, Seix-Barral, Bartzelona, 1971, 22-24. orr.) aldarrikatu arren (ikus, besteak beste, E. Gil Beraren hitzaurrea Joanes Uharte Donibanekoaren *Zientzietarako Argimenean Azterketa*-ren Xabier Kintanaren itzulpenean, 1996) Uharteren ekarpenak Chomskyren oinarria dugun Aristotelesekinekin eragindako hausturatik abiatzen da pentsaeraren aniztasuna aldarrikatzeko, gizaki guztiona den jatorrizko adimen komuna baztertuz. Ikus Fito Rodriguezen "Hizkuntza eta Pentsakera" in B.B.A.A. *Hizkuntza, Hezkuntza eta Elebiduntasuna*, UEU, Bilbo (1993), 21-23 orr.

9. Garunean bentrakuluak banatzen ditu.

Eskolastikaren nominalismoari muzin eginez, materialismo naturalista zein eraikuntza kognitiboaren alde agertu zen hastapenetatik. Ikus dezagun II. atalean, 1594.eko IV.an «non deklaratzan den Natura dela mutila ikasteko trebe egiten duena»:

Jende arruntak, argimen eta trebetasun handiko gizona dakusanean, laister seinalatzen du Jainkoa autoretzat eta ez du beste ezein ere kausaz ardurarik ukaiten; aitzitik, alferreko irudimen deritzo hemendik urruntzen den orori. Baina filosofo naturalak mintzamolde honetaz burlatzen dira (*op. cit.* 72).

Horrela, autoritate eskolastikoetatik kanpo klasikoen berrirakurtzeari ekin zion, gehienetan Platonen aurka («Platonek espantatzen nau...», *op. cit.* 105) eta Aristotelesen «bertsio enpirikoa» azpimarratuz:

Aristoteles beste bide batetik abiatu zen erranez: gizonek dakiten eta ikasten duten guztia, hori entzun, ikusi, usaindu, dastatu eta ukitua izatetik sortzen da... (*ibidem*).

Ildo beretik, ezaguera eraikitze bidea ulerkuntza dela argi utzi nahi izan zuen; baita adimena garatzeko heziera mailakatuak duen garrantzia ere:

Zeren gorputza egun bakarrean anitz jan eta edanez mantentzen ez den bezala, baizik eta urdailean egosi eta eraldatzen denetik, era berean, denbora laburrean anitz irakurketarekin ez da gure endelegua gizentzen, baizik eta pixkanaka konprenituz eta hausnartuz doanarekin (*op. cit.* 71).

Honekin batera, VIII. Atalean zientzia bakoitzari dagokion adimen-mota sailkatu zuen. Bere aburuz, jakina denez, Latina eta Gramatika ikasgaiak dira oroimen ona dutenentzat. Dialektika, berriz, ezaguerari dagokio, eta Astrologia irudimenaz lantzen da hoberen.

Patologiak ere zerrendatu zituen bigarren argitalpeneko bigarren atalean. Alde batetik, adimen «zikiratua» daukatenak daudela dio, ezer ulertzeko gai ez direnak. Bestetik, ulertu ondoren oroimenean ezer gorde ez dutenak ere adimen gabezia dutela uste du, eta, azkenik, jende nahastua dugu, kontzeptu gehiegi sortzen dituztenak, alegia (*op. cit.* 62, 63).

Lehenengo atalean, berriz, adimena duenaren ezaugarria kontzeptu berriak sortzea dela dio. Latinetik ekarriak, *gigno*, *ingigno* eta *ingenero* hitzak erabili zituen irudimenaren sorkuntza adierazteko<sup>10</sup>. Horren arabera hiru motako ikasleak bereiz zitezkeen: maisuak dioena ongi ulertu, ikasi eta gordetzen duen ikaslea, hamaika kontzeptu sortzeko gai dena eta inolako laguntzarik gabe ikasteko gaitasuna duena (*op. cit.* 55, 56, 57). Ikasleria horrela definituz (patologia eta guzti!) Uhartek giza-kiak sailkatzeko irizpideak emateaz gain, adimena definitu zuen, eskolastikaren aurka, oso era modernoan. Alde batetik, gizabanako bakoitzak dituen ezaugarri naturalen baldintzak ezagutarazi zituen eta, bide horretatik, haien arabera adimena garatzeko bideak ere eskaintzeko aukera izan zuen.

---

10. Gogoeta honen inguruan, dudarik gabe, Uharteren arrastotik hartu zuen Marinak bere *Elogio y Refutación del ingenio* (XX Premio Anagrama de ensayo, Anagrama, Bartzelona, 1992).

Berpizkundetik aurrera hasitako gizabanakotze-prozedura zibilizatzaileak (Elías, 1973) Uharterengan du oinarria Erasmus, Vives edo Castiglione garaikideengan baino gehiago (Erasmus, 1985; Vives, 1969). Azken horiek, heziera sotiltasunarekin parekatuz, gorputzaren gizarte-kontrolari ekin bazioten ere (Morreale, 1959), Uhartek gorputzaren eta gogoaren arteko harremanak aztertzeko ausardia izan baitzuen<sup>11</sup>.

Gaur egungo ezagueraren gizartean (Toffler, 1991) non «beren maisuei ez eta beste inori ere inoiz entzun ez zieten astatzen dutenak» (Uharthe Donibanekoa, 1996: 56) betetzen duten ikasleak behar dira (Tedesco), Uharteren ekimenak, ezagunak diren jazarpen nahiz debeku guztiak pairaturik ere<sup>12</sup>, garaipena erdietsi duelakoan nago. Izan ere, Erdi Aroko antzera, dagoena errepikatzea baino gehiago, norberak pentsatu ahal izatea eskatzen du gaur egungo egoerak; eta Uharteren aldarria, funtsean, horixe besterik ez zen izan, pentsamendu askearen aldeko jarrera intelektuala.

## Bibliografia

- Ajo, C. M. (1957): *Historia de las universidades hispánicas*, CSIC, Madril.
- Álvarez-Uría, F. eta Varela, J. (1994): *Las Redes de la Psicología: Análisis sociológico de los códigos médico-psicológicos*, Libertarias/Prodhufo, Madril.
- B.B.A.A. (1978): *Ordenes, estamentos y clases*, Siglo XXI, Madril.
- Cipolla, C. (1970): *Educación y desarrollo en Occidente*, Ariel, Bartzelona.
- Elías, N. (1973): *La civilisation des moeurs*, Calmann-Lévy, Paris.
- Erasmus, (1537): *De la urbanidad en las buenas maneras de los niños*, (1985), MEC, Madril.
- Etxarren-Lohigorri, J.B. (1975): *Huarte, Hator Etxerat*, Jakin, Donostia.
- Foucault, M. (1954): *Maladie mentale et personnalité*, PUF, Paris.
- , (1961): *Histoire de la folie à l'âge classique*, Plon, Paris.
- , (1963): *Naissance de la clinique. Une archéologie du regard médical*, PUF, Paris.
- , (1975): *Surveiller et punir*, Gallimard, Paris.
- Garin, E. (1987): *La educación en Europa, 1400-1600*, Crítica, Bartzelona.
- Garmendia, J. (1979): *Gremios, Oficios y Cofradías en el País Vasco*, CAP, Donostia.
- Goffman, E. (1970): *Internados*, Amorrortu, Buenos Aires.
- Joanes Uharthe Donibanekoa, *Zientzietarako Argimenean Azterketa* (Xabier Kintanaren itzulpena, 1996) Klasikoak, Bilbo.
- Le Goff (1957): *Les intellectuels au Moyen Âge*, Seuil, Paris.
- López, C. (1977): "Juan Huarte", in *Cien Vascos de Proyección Universal*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Marina, J. A. (1992): *Elogio y Refutación del ingenio* (XX Premio Anagrama de ensayo), Anagrama, Bartzelona.
- Morreale, M. (1959) *Castiglione y Boscán. El ideal cortesano en el Renacimiento español*, Madril.

---

11. «Uharteren liburuak irudimen modernoa ahalbideratu zuen...» dio Marinak bere *Elogio y Refutación del ingenio* liburuko 255. orrian.

12. *Zientzietarako Argimenean Azterketa* 1575ean lehen aldiz kaleratu bazen ere, 1581ean Inkisizioaren Indexean zerrendaturik izan zen 1966ra arte, zeinean aipatu Tribunalak liburu debekatuen aurkibidea zen Indexa desagerrarazi zuen (*Acta apostolicae sedis*, LVIII. liburukia, 186. or.).

- Olaizola, J. M. (1993): *Historia del Protestantismo en el País Vasco*, Pamiela, Iruñea.
- Panofsky, E. (1959): *Arquitectura gótica y pensamiento escolástico*, Infinito, Buenos Aires.
- Rodríguez, F. (1994): "Kultur Gutxiagotuak eta Pentsamenduaren Independentzia" in *Actas del Primer Congreso Internacional de Ontología (Categorías e inteligibilidad Global)*, Universitat Autònoma de Barcelona, 463-465 orr.
- Sacristán, M. (1977): "La universidad y la división del trabajo", *Argumentos*, 37-48.
- Tedesco, J. C. "Educación y sociedad del conocimiento", *Cuadernos de Pedagogía*, **288**, 82-86.
- Toffler, A. (1991): *El cambio de poder*, Plaza y Janés, Barcelona.
- Torre, E. (1976): "Las influencias", in *Examen de Ingenios para las Ciencias*, Editora Nacional, Madrid.
- Varela, J. eta Álvarez-Uría, F. (1991): *Arqueología de la escuela*, La Piqueta, Madrid.
- Varela, J. (1983): *Modos de educación en la España de la Contrarreforma*, La Piqueta, Madrid.
- Vives, J. L. (1969): *Diálogos*, Espasa-Calpe, Madrid.
- Weber, M. (1964): *L'éthique protestante et l'esprit du capitalisme*, Plon, Paris.